

**EAJ-PNV eta PSE-PSOEek talde politikoek, Udal plenoan eztabaidatzeko, VLADIMIR PUTINEK UKRAINAREN AURKAKO ERASOA ARBUIATZEKO MOZIOA aurkezten dute:**

2022ko otsailaren 24ean, Vladimir Putin Errusiako presidentek Ukrainaren aurkako operazio militarra agindu du.

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, herrialdearen ekialdeko hiri batzuei eraso egin diete eta Kiev hiriburuan ere leherketak entzun dira. Errusiako indarrek muga zeharkatu dute herrialdeko beste toki batzuetan.


Ukrainako Barne Ministerioak jakinarazi duenez, tropa errusiarrak Odessa portu-hirian lurreratu dira, eta hainbat tokitatik ari dira erasotzen, Krimeako Ukrainako penintsulatik barne. Krimeako penintsula 2014an anexionatu zen legez kanpo, eta erasoaldia Errusiatik zein Bielorrusiatik abiatu da.

Gerra hotza amaitu zenetik gatazkarik larriena izan den aldebakarreko eraso horren aurrean, Europar Batasunaren egonkortasuna, nazioarteko ordena eta bakea arriskuan jarri nahi baititu:

Udal honek:

1. Estatu subirano baten aurkako gerra-egintza hauen aurrean bere arbuio sakonena erakusten du.
2. Vladimir Putini inbasioa berehala eteteko eta tropa guztiak Errusiara itzultzeko eskatzen dio.
3. Erabateko babesa ematen die Europar Batasunak eta Estatu kideek erabakitako ekimen eta ekintza guztiei, eta bide horretatik jarrai dezaten eskatzen die, Ukrainari ahalik eta gehien laguntzeko eta gerra-erasoaren amaiera lehenbailehen lortzeko, hala nola indar inbaditzaile guztiak Errusiara itzultzeko.
4. Diplomaziara itzultzeko eskatzen du, Bakea berrezartzeko eta ondorio suntsitzaile gehiago saihesteko.
5. EBri eta nazioarteko komunitateari Ukrainarako finantza-laguntza eta laguntza humanitaria emateko eskintzen die.

Tolosan, 2022ko martxoaren 25ean

EAJ-PNV  


Olatz Peon Ormazabal

PSE-PSOE  


Jose Mari Villanueva Telleria